

8.2 LSSI

8.2 IGZL



## ¿CUMPLE TU EMPRESA CON LA LEGALIDAD PARA TENER PRESENCIA EN INTERNET?

### BETETZEN AL DU ZURE ENPRESAK INTERNETEN AGERTU AHAL IZATEKO LEGERIA?

*La Ley de Servicios de la Sociedad de la Información y el Comercio Electrónico (LSSICE, o más popularmente conocida como LSSI), entró en vigor el pasado 12 de Octubre de 2002, y regula la utilización de los servicios electrónicos y la realización de transacciones comerciales en Internet. Su incumplimiento deriva en fuertes multas económicas, por lo que es muy importante para cualquier compañía ajustarse a su reglamentación. Si quieres conocer cómo afecta a tu empresa y que ésta esté preparada para cumplir con los requisitos que se le exigen, no dejes de leer lo que sigue a continuación.*

*Informazio-gizartearen Zerbitzuak eta Merkataritza Elektronikoa arautzeko Legea (IGZMEL, edota, laburrago esanda IGZL) 2002ko urriaren 12an sartu zen indarrean, eta Interneteko merkataritza-salerosketak eta zerbitzu elektronikoak erabilera arautzen ditu. Lege hau ez betetzeak isun handiak ekartzen dituenez, oso garrantzitsua da edozein enpresak araudiaren arabera jokatzeko. Jakin nahi baduzu nola eragiten duen zure enpresari, baita hau prestatuta dagoen ere eskatzen diren betekizunak betetzeko, ondoren datorrena irakurri besterik ez duzu.*

Nekane Aurrekoetxea, reputado orfebre de un pequeño pueblo de la costa vizcaína, es una mujer emprendedora que lleva 20 años al frente de su pequeño negocio familiar de joyería. Siguiendo la tradición familiar, decidió continuar con la labor iniciada por su bisabuelo, que generación tras generación ha ganado el reconocimiento unánime de toda Bizkaia por su calidad y exquisito gusto en la realización de sus piezas.

Bizkaiko kostaldeko herri txiki bateko Nekane Aurrekoetxea urregin ospetsua emakume saiatua da, bitxigintza-negozio familiar txikian 20 urte daramatzana. Senitartearen tradizioari jarraiki, birraitonak hasitako jarduera segitzea erabaki zuen, belaunaldiz belaunaldi bitxiak garatzen erakutsitako kalitate zein gustu bikainagatik Bizkai osoan aho bateko ospea lortu duena.

Sin embargo, animada por el éxito cosechado en su entorno y aconsejada por una joven sobrina, en las Navidades de 2003 decide embarcarse en la aventura de Internet y las nuevas tecnologías con la intención de crear una página web (aunque no sabe muy bien cómo se hace) que promocioe y publicite su negocio a nivel autonómico.

Hala ere, bere ingurunean lortutako arrakastak bultzatuta eta iloba gazte batek aholkatuta, 2003ko Gabonetan Interneten eta teknologia berrien munduan murgiltzea erabaki zuen, EAEn bere negozioa bultzatu eta sustatzeko web orri bat sortzeko asmoz, oso ondo ez bazekien ere nola egin beharko zuen.

Para ello, encarga a su sobrina que diseñe el sitio web de Joyería Aurrekoetxea, donde tengan cabida los datos de situación, contacto y localización de la empresa, así como un poco de historia de la familia fundadora de la misma, y sobre todo, un amplio catálogo con las mejores obras realizadas a lo largo de los años, para que toda persona que visite la página conoz-

Horretarako ilobari Aurrekoetxea Bitxi-Dendaren web orria diseinatu zezala agindu zion; bertan enpresaren egoera, kokapena eta harremanetarako datuak agertu behar ziren, enpresa sortu zuen senitartearen historia laburrarekin batera, eta, batez ere, urte hauetan guztietan egindako bitxi onenen katalogoa, orria bisitatuko zuen pertsona orok negozioaren berri eduki zezan eta ekoizten diren bitxiak ikus zitzaizkien.

ca el negocio y pueda interesarse por las piezas que se producen.

Su sobrina realiza una labor fulgurante y en cuestión de 15 días Nekane recibe las primeras muestras de admiración hacia su flamante página web (registrada por la sobrina con los datos de su tía y con el original nombre de [www.joyeriaaurrekoetxea.com](http://www.joyeriaaurrekoetxea.com)) que recibe multitud de visitas en sus primeras semanas de vida.

Los teléfonos no paran de sonar en la Joyería Aurrekoetxea, con encargos y peticiones de lo más variopinto y desde los lugares más recónditos que ni la propia Nekane podía imaginar. Todo iba como la seda y nuestra protagonista ya vislumbraba en sus sueños el caserío que iba a adquirir con los beneficios de su gran acción comercial.

Pero a principios de Marzo, todo cambia súbitamente: recibe en su casa una notificación del Ministerio de Ciencia y Tecnología. ¿Qué pasará? se pregunta Nekane: - Es un poco tarde para una felicitación navideña...

Efectivamente, los peores augurios se confirman: se trata de una sanción administrativa de 180.000€ por incurrir en dos faltas contra la LSSI; una leve, de 30.000€, por la no comunicación al registro correspondiente del nombre de dominio "www.joyeriaaurrekoetxea.com", y otra grave, de 150.000€, por la falta de informaciones básicas en la página web tales como nombre y domicilio de la persona titular de la página o dirección de correo electrónico del mismo.

Nekane, después de recuperarse del tremendo sobresalto, decide informarse convenientemente de los requisitos a cumplir para no volver a incurrir en ninguna falta de semejantes características... y retirar la paga a su sobrina de por vida.

Si no quieres que te suceda lo que a nuestra protagonista, no dejes de prestar atención a cuáles son los requisitos que exige esta Ley a las empresas que quieran tener presencia en Internet.

Las actividades que suponen obligaciones con la LSSI, para las empresas que quieran tener presencia en Internet son las siguientes:

1. Disponer de uno o varios nombres de dominios contratados.
2. Tener una página web.
3. Realizar comercio electrónico.
4. Utilizar el correo electrónico para notificaciones publicitarias.

Y por lo tanto, los requisitos a cumplir para cada uno de los supuestos anteriores son los siguientes:

#### Caso 1: Nombres de dominio

Si una empresa tiene registrados uno o varios dominios (por ejemplo: [www.joyeriaaurrekoetxea.com](http://www.joyeriaaurrekoetxea.com), [www.joyeriaaurrekoetxea.net](http://www.joyeriaaurrekoetxea.net) o [www.joyeriaaurrekoetxea.biz](http://www.joyeriaaurrekoetxea.biz)) en los cuales realiza actividades económicas, **debe notificar al menos uno de ellos:**

- **Dónde:** En el Registro Público en el cual esté registrada para obtener personalidad física o jurídica.

Ilobak lan ederra egin zuen eta 15 egunen bueltan [www.joyeriaaurrekoetxea.com](http://www.joyeriaaurrekoetxea.com) izen originalarekin eta izebaren datuekin erregistratutako web orri bikainarengatik mirespenezko lehenengo azalpenak jaso zituen Nekaneek, baita lehenengo asteetan bisita ugari ere.

Telefonoak jo eta ke zebiltzan Aurrekoetxea Bitxi-Dendan, Nekaneek inoiz asmatuko zituen leku oso urrunetatik egindako mota guztietako eskaerak jasotzen zebilen. Dena primeran zihoan, eta gure protagonista hasia zen merkataritza-jarduera handi horren ondorioz erosiko zuen baserri ezin ederragoa antzematen.

Baina, martxoaren hasieran, bat-batean dena aldatu zen: Zientzia eta Teknologia Ministerioaren jakinarazpen bat jaso zuen. Zer gertatu ote da? galdetu zion Nekaneek bere buruari: - Pixka bat berandu da Gabonetako postal bat jasotzeko...

Susmorik txarrenak bete egin ziren; 180.000€ko isun administratibo bat zen, IGZLren kontrako bi huts egiteagatik; bata, arina, 30.000€koa, dagokion erregistroari "www.joyeriaaurrekoetxea.com" domeinuaren izena ez jakinarazteagatik, bestea, larria, 150.000€koa, web orriaren oinarritzko informazioa (orriaren jabearen izena eta helbidea edota bere posta elektronikoa erabiltzea, esate baterako) ez agertzeagatik.

Nekaneek, behin ezusteko latz hori gaindituta, inoiz holako beste huts bat ez egiteko behar den informazioa eskuratzea erabaki zuen, baita ilobari bizitza osoko aste-saria kentzea ere.

Gure protagonistari gertatutakoa gerta ez dakizun nahi baduzu, adi egon, azalduko baitizugu zeintzuk diren Lege honek enpresei ezartzen dizkien betekizunak Interneten agertu ahal izateko.

Interneten agertu nahi duten enpresei IGZLrekiko betebeharrak ekartzen dizkieten jarduerak honakook dira:

1. Kontratutako domeinuen izen bat edo gehiago edukitzea.
2. Web orri bat edukitzea.
3. Merkataritza elektronikoa jardutea.
4. Publizitate-jakinarazpenetarako posta elektronikoa erabiltzea.

Beraz, kasu bakoitzean bete beharreko betekizunak honakook dira:

#### 1. Kasua: Domeinuen izenak.

Enpresa batek jarduera ekonomikoak garatzen ditueneko domeinu bat edo gehiago erregistratuta badauzka (adibidez: [www.joyeriaaurrekoetxea.com](http://www.joyeriaaurrekoetxea.com), [www.joyeriaaurrekoetxea.net](http://www.joyeriaaurrekoetxea.net) edo [www.joyeriaaurrekoetxea.biz](http://www.joyeriaaurrekoetxea.biz)), **haietariko bat gutxienez jakinarazi behar du:**

- **Non:** Nortasun juridiko edo fisikoa lortzeko erregistratuta dagoen Erregistro Publikoan.
- **Noiz:** Domeinua kontratatu osteko hilabetean.
- **Nola:** Dagokion Erregistroan eskari bat beteaz.

#### 2. Kasua: Web orri korporatibo bat edukitzea.

Enpresak, domeinuaz gain, web orri bat ere badauka, IGZLk "informazio orokorraren" atal bat (zuzeneko atzipeneko, era-



- **Cuándo:** En el plazo de un mes desde la contratación del dominio.
- **Cómo:** Rellenando una instancia en el correspondiente Registro.

### Caso 2: Tener una página web corporativa

Si la empresa dispone, además del dominio, de una página web, la LSSI obliga a tener un apartado (de acceso público, claramente visible y siempre disponible) de "información general" con los siguientes datos:

- Nombre de la empresa o persona física.
- Dirección de la empresa.
- Correo electrónico o teléfono.
- Datos de inscripción del Registro Mercantil (o el que corresponda en cada caso).
- Código de Identificación Fiscal (CIF).

### Caso 3: Realizar comercio electrónico

En este caso, la empresa debe incluir información inequívoca sobre los siguientes conceptos:

- Precios (si llevan IVA. o no, si los gastos de envío están o no incluidos, etc).
- Condiciones generales del contrato.
- Medios técnicos para la corrección de datos.
- La(s) Lengua(s) en las que se podrá realizar el contrato.

Además de las anteriores informaciones generales, será necesario indicar en las páginas del proceso de compra:

- Número de páginas que la clientela tiene que pasar.
- Qué se va a realizar en cada una de ellas.

Y una vez finalizado el proceso de compra, será obligatorio confirmar la celebración del contrato por vía electrónica, mediante el envío de un acuse de recibo del pedido realizado

### Caso 4: Utilizar el correo electrónico para notificaciones publicitarias.

Si la empresa utiliza el correo electrónico para enviar información comercial a la actual y/o potencial clientela, la LSSI obliga a:

- Obtener la autorización previa de la persona destinataria.
- Establecer procedimientos sencillos para la revocación del consentimiento por parte de la persona usuaria.
- Identificar el mensaje con la palabra "publicidad" en el asunto.
- Identificar a la persona anunciante mediante el nombre de la empresa que lo envía en el cuerpo del mensaje.

bat ikusgarria eta beti eskuragarria) edukitzera behartzen du, honako datu hauekin:

- Enpresaren edota pertsona fisikoaren izena.
- Enpresaren helbidea.
- Posta elektronikoa edota telefonoa.
- Merkataritza-Erregistroko (edota dagokioneko) inskripzioaren datuak.
- Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).

### 3. Kasua: Merkataritza elektronikoa jardutea.

Kasu honetan, enpresak honakooi buruzko informazio erabat argia eskaini behar du:

- Salneurriak (BEZdunak diren ala ez, bidalketa-gastuak sartzen diren ala ez, eta abar).
- Kontratuaren baldintza orokorrak.
- Datuak zuzentzeko baliabide teknikoak.
- Kontratua egiteko erabili daite(z)keen hizkuntza(k).

Aipatu informazio orokorrez gain, erosteko prozesuko orrialdeetan honakook azaldu beharko dira:

- Bezeroak iragan behar dituen orrialdeen kopurua.
- Orrialde bakoitzean zer egin behar den.

Eta behin erosteko prozesua bukatuta, derrigorrezkoa da bide elektronikoa bidez kontratua egin izana berrestea, egindako eskariaren hartu-agiri baten bidalketaren bidez.

### 4. Kasua: Publizitate-jakinazpenetarako posta elektronikoa erabiltzea.

Enpresak posta elektronikoa erabiltzen badu, dituen edo eduki ditzakeen bezeroei merkataritza-informazioa bidaltzeko IGZLK honakook ezartzen ditu:

- Aldez aurretik jasotzailearen baimena eskuratzea.
- Erabiltzaileak baimena bertan behera utzi ahal dezan jarraibide errazak ezartzea.
- Gaiaren mezua "publizitate" hitzarekin identifikatzea.
- Testuan bertan pertsona iragarlea mezua bidaltzen duen enpresaren izenaren bidez identifikatzea.

Por lo tanto, como se puede comprobar, cumplir con la legalidad en materia de presencia en Internet no es tan complejo, pero sí requiere de una preocupación por ello, por lo cual debe pedirse a las personas encargadas del diseño de la página web de la empresa, que tengan presente dicho marco legal y la desarrollen siguiendo íntegramente sus preceptos y requerimientos. Para consultar íntegramente el texto legislativo de la LSSI, se puede acceder a él en la siguiente dirección: [www.boe.es/boe/dias/2002-07-12/pdfs/A25388-25403.pdf](http://www.boe.es/boe/dias/2002-07-12/pdfs/A25388-25403.pdf). También se puede obtener información en una página dedicada por completo a dicha Ley: [www.lssi.es](http://www.lssi.es).

Beraz, eta ikusten den bezala, Interneten agertzeari buruzko legalitatea betetzea ez da hain zaila, baina bai eskatzen duela bete-behar horretaz arduratzea, hau dela-eta, enpresaren web orria diseinatzeaz arduratuko diren pertsonen eskatu behar zaie aipatutako legeria kontuan har dezatela eta legearen aginduak zein eskakizunak zehatz-mehatz bete ditzatela. IGZLren lege-testu osoa kontsultatzeko, helbide honetara jo behar da: [www.boe.es/boe/dias/2002-07-12/pdfs/A25388-25403.pdf](http://www.boe.es/boe/dias/2002-07-12/pdfs/A25388-25403.pdf). Era berean lege horria osoki eskainita dagoen web orri honetan ere informazioa eskuratu daiteke: [www.lssi.es](http://www.lssi.es).

\* Para más información sobre requisitos legales de las páginas web, consultar ficha 8.1. (Ley Orgánica de Protección de Datos - LOPD)

\* Web orrien legeko betekizunei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu 8.1. fitxa (Datuak Babesteko Lege Organikoa-DBLO).